



Ikastaroaren oinarriak elkarlana eta emaitzen trukatzeari

**Bil ditzagun gure proiektuak  
Eman izena pools-en!  
e-mail [ka@ots.dk](mailto:ka@ots.dk)**



Hizkuntz-proiektu baten partaide bazara, - edo dagoeneko proiekturik egina baduzu – bada, mesedez, egizu kontu parteka dezakezula zeuk ondorioztatutakoa beste proiektu batzuen emaitzekin. Izan ere, honela, geure xede-erabiltzaileenganaino iristea badaukagu, eta, honenbestez, eragin esanguratsua sortarazi.

Leonardo II-k babesten du Pools proiektua, zeinak garatzen dituen irakasleentzako formakuntza ikastaroak irakasmaterialen fondoetan oinarrituta. Oraingoan, bederatzi hizkuntza hartu ditugu kontuan : Euskara, Daniera, Nederlandera, Ingelesa, Gaeliko (Eskoziakoa), Alemana, Lituania, Errumaniera, eta Gaztelania. Baina, era berean, xede nagusietako bat ere bada elkarlanean aritzea beste hizkuntz-proiektu batzuekin.

Beraz, erakutsi zeure emaitzak pools-en webgunean. Bertan eskura duzu hainbat material, zeina erabilgarria izan daitekeen zeure proiektuetan. Gurekin elkarlanean aritu nahi baduzu, hauxe gure helbidea: e-mail [ka@ots.dk](mailto:ka@ots.dk).





Proiektuaren xede-taldea lanbide heziketan aritzen diren hizkuntza gutxituen irakasleena da. Hauek, betiere, berariazko material urria dute, eta sarritan, eurek sortu behar izaten dute; baldin eta e-learning bidezko metodoaren alde onak baliatu nahi badituzte. Geuk sortuko ditugun produktuak hauek izango dira:

1. On-line bidezko materialaren partekatzea irakasleen prestakuntzarako eta irakaskuntzarako.
2. Hainbat hizkuntz-gaitasun bereganatzeko ikastaro ICT-en oinarrituta, eta beraiek garatzeko baliabideak. Ikastarook garatuko ditugu eskolako bertako moduluetan, Urrutiko irakaskuntzan eta aipatu biak hartzen dituen ikastaroetan.
3. On-line bidezko materiala sortzeko instrukzioak ematen dituen DVDa.
4. Hainbat metodo eta e-learning bidezko materiala biltzen duen ikastarorako liburua.
5. Webgunea: bertan bilduko ditugu proiektuok. Guneak berekin izango ditu proiektuen material guztia: bideoak, eztabaidaguneak (foroak), eta helbide elektronikoen zerrenda.

Proiektuaren webgunea, [www.languages.dk](http://www.languages.dk) da. Urteko 13.000 pertsonak jotzen dute bertara. Hizkuntzak irakasteko materialaren bila ari garenean, Yahoo-ren eta Google-ren azalean agertuko zaigu.

Europako bokaziozko ikaskuntzarako eta irakaskuntza teknikorako Forumak – partaide den aldetik – helaraziko die material hau arduradunei European zehar.

## Pool, Leonardo II proiektua, 2005 eko urriaren 1etik 2007 ko irailaren 30era

Aurrez, informazioa behar: 2000. urtean inkesta bat egin zieten Ebko irakasleei. Europako hizkuntzak i(ra)kasteko materialari buruzko inkesta, hain zuzen. Inkesta honen emaitzen ondorio nagusiak, bi izan ziren : batetik, egiaztatu zuten hizkuntza gutxituen irakasleen formakuntza pedagogikoa eskasa zela; bestetik, ondorioztatu zuten eskola liburuen oinarritzko metodoa ez zela komunikatiboa, ez zuela ardatz nagusi komunikagaitasuna.

Beraz, zer hobeturik bazegoela azalera zuen inkestak. Hau, 2002an egin zuten eta bere erreferentzia EBko Batzorderako txostenean jasota dago: „irakasle guztiek metodologia komunikatiboan – komunikagaitasunean – trebatu beharko lukete,, (ikus. txostena: „atzerriko hizkuntzetako irakasleen trebatzea). Eta aurrerago txostenean: „ahalegin handiagoa egin beharra dago hasierako trebatze ikastaro hauek denon skura jartzeko, ahalik eta euskarri ezberdin gehienetan: on-line bidezkoak eta bestelakoetan,,.

Pool-ek lehenago aipatu beharrei irtenbidea emateko asmoa du on-line bidezko material-fondoak sortuz (copyleft-en bidez material ale adina kopia egiteko baimena badugu, bai eta berau banatzeko eta aldatzeko ere).

Era berean, honela, trebatze ikastaroak garatu, aztertu, eta zabaltzeko aukera izango dugu.

Ikastaroaren moduloek berekin hartuko dute ere ICT moduko aukerak gutxien irakasten diren hizkuntzentzat: Euskara, Daniera, Niderlandera, Gaelikoa (Eskoziakoa ), Lituania, eta Errumaniera.

Proiektuaren emaitzak erantsiko dizkiogu lehen egindako beste proiektu bati (BP – BLTM), eta baita beste hainbat ICT eta LA moduko proiekturi.

Elkarlan honen helburua esperientzia eta trebetasunak trukatzeko eta partekatzea da, eta honen bidez, eragin zabalagoa eta egokiagoa izatea zabalkundearen bidez.

